

Ostalaritzaren sektorearen negozio-zifra Euskal AEn % 33,9 hazi da 2021ean, baina ez da bueltatu pandemiaren aurreko zifretara

Ekitaldiaren emaitza, hala ere, serie historiko osoko handiena da

2021ean, *Ostalaritzaren* sektoreak, Euskal AEn, ostatu-zerbitzuak ematen dituzten eta jatekoen eta edarien zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak hartzen dituenak, % 33,9ko hazkuntza izan du negozio-zifran, Eustaten datuen arabera.

Zifra horrek hazkuntza erlatibo nabarmena egon dela erakusten badu ere, ostalaritzaren sektoreak 2021ean 3.175 milioi euro fakturatu ditu eta, oraindik, 2019ko kopurutik (4.510 milioi euro) urrun dago, COVID-19aren pandemiaren aurretik urteko kopurutik. Hala, pandemiaren eraginez galdutako 2.139 milioi euroetatik, 804 milioi berreskuratu dira.


Euskal AEko *Ostalaritzaren* sektoreak, 2021ean, 59.144 pertsonari eman die enplegua 13.410 establezimendutan; alegia, % 2,3ko jaitsiera izan da enplegatutako pertsona kopuruan, eta % 0,8koa, establezimenduen kopuruan, 2020ko zifrekin alderatuta. Balio absolutuetan, 1.375 enplegu gutxiago eta 113 establezimendu gutxiago daude eta, 2020ko murrizketak ere kontuan hartuta, pandemiaren urtekoak, 2019ko urtekoekin alderatuta, establezimenduen % 2,2 galdu dira eta enpleguaren % 7,7.

Hala ere, ostalaritzak, 2021aren amaieran, eskuragarri dagoen serie historikoko ekitaldiaren emaitza onena izan du. Lortutako 239,5 milioiko superabitak erakusten du, adierazle horrek zifra positiboak berreskuratzeaz gainera, hura alde handiz bilakatu dela sekula egiaztatutako ekitaldirik onena, 2017aren gainera, nabarmen, kontuan hartuta orain arte hura izan dela lehen posizioan, ekitaldian 195,1 milioi euroko emaitza positiboarekin.

Emaitza horren arrazoi nagusia da gastu-partidei eutsi zaiela, zehazki, zuzkiduretan eta pertsonalean. Nahiz eta langile-gastuek % 14,4 gora egin duten azken urtean, haien maila oraindik 2019koaren (% 34,8) azpitik dago. Antzera, zuzkidurek gora egin dute 2021ean, eta % 31,6koak izan dira, baina, oraindik, duela bi urtekoak baino % 25 baxuagoak dira.

Esanguratsua da, era berean, faktore-kostuetako balio erantsi gordinaren bilakaera –hark sortutako aberastasuna adierazten du eta ekoizpen gordina ken tarteko kontsumoen baliokidea da, dirulaguntzen eta zeharkako zergen doitzea egin ondoren–; izan ere, % 48,3 egin du gora urte bakar batean. Hala ere, 2019an izandako erregistroaren azpitik dago, % 28,8 azpitik.


Euskal AEko Ostalaritza-sektoreko negozio-zifraren banaketa, jarduera-taldeen arabera. 2021



Iturria: Eustat. Zerbitzuen inkesta

Aldi erabilgarriak 2021 ▼

Euskal AEko Ostalaritza-sektoreko langile okupatuen banaketa, jarduera-taldeen arabera. 2021



Iturria: Eustat. Zerbitzuen inkesta

Aldi erabilgarriak 2021 ▼

Ostalaritzaren barruan, Jatekoak eta edatekoak dibisioa –hark, aldi berean, *Jatetxeak, Jatekoen beste zerbitzu batzuk eta Edarien establezimenduak* azpisektoreak jasotzen ditu– da nagusia: establezimenduen % 89,8 hartzen ditu, enpleguaren % 89,5 eta fakturazioaren antzeko proportzioa, % 86,7.

2021ean, haren negozio-zifra 2.754 milioi eurokoa izan da; alegia, % 30,9 handiagoa, 2020aren aldean. Enplegua % 2,5 murriztu da, berriz, eta mila eta hirurehun enplegu galdu dira; guztira, 52.924 landun daude dibisio horretan 2021ean. Era berean, establezimenduak galdu dira, baina neurri txikiagoan: 113 establezimendu gutxiago, zehazki.

Dimentsioa murriztu bada ere, *Jatekoak eta edatekoak* dibisioak lortu du ekitaldiaren amaieran ekitaldiko emaitza positiboa izatea: 210,6 milioi euroek nabarmen gaititu dute 2017an izan zen 143 milioi euroko emaitza, orain arteko handiena.

Emaitzak jardueraren maila bereiziagoan aztertuta, *Jatetxeen* azpisektoreak, esanguratsuenak, % 33,4ko aldakuntza positiboa izan du fakturazioan, eta enpleguari eutsi dio (+% 0,5) eta establezimendu kopurua ere handitu du (+% 3,0).

Dibisio hori osatzen duten beste bi azpisektoreek murrizketa gehiago izan dituzte enpleguan eta establezimendu kopuruan. Doitze hori establezimendu kopuruan izan den % 2,8ko jaitsieran eta enplegu kopuruan izan den % 3,4ko jaitsieran islatu da, *Edarien establezimenduen* azpisektorearen kasuan. Murrizketa areagotu egin da *Jatekoen beste zerbitzu batzuk* azpisektorean, cateringean, besteak beste; hartan, enplegatutako pertsona kopuruak ia % 8 egin du behera, eta establezimenduenak, % 4. Negozio-zifra % 31 areagotu da, berriz, *Edarien* establezimenduetarako eta % 21,1, *Jatekoen beste zerbitzu batzuk* azpisektorerako.

Agerikoagoa da *Ostatu-zerbitzuen* dibisioaren suspertzea; hura *Hotelak* eta *Beste ostatu batzuk* azpisektoreek eratzen dute. Dibisioak *Jatekoen eta edatekoen zerbitzuenak* baino murrizketa handiagoak izan ditu, COVID-19agatiko pandemiaren ondorioengatik. 2021ean, 6.200 pertsonari dagokien enplegu kopurua izan du (–% 0,7), eta establezimenduen kopurua 1.370 inguru izan da (+% 0,4). Negozio-zifrak 153,9 milioi euro berreskuratu ditu, eta aise gaititu du laurehun milioi euroko kopurua (421,3 milioi); alegia, 2021ean % 57,6 gehiago fakturatu da.

Euskal AEko ostalaritza-sektoreko aldagai nagusiak, jarduerataldearen arabera (mila euro). 2021

	Establezimenduak		Landun-kopurua		Negozio kopurua		Ekitaldiaren emaitza	
	Balioa	Urteko aldakuntza (%)	Balioa	Urteko aldakuntza (%)	Balioa	Urteko aldakuntza (%)	Balioa	Urteko aldakuntza (milaka euro)
OSTALARITZA	13.410	-0,8	59.144	-2,3	3.175.322	33,9	239.463	313.718
Ostatu-zerbitzuak	1.373	0,4	6.220	-0,7	421.270	58	28.878	107.501
Hotelak eta antzeko ostatuak	636	1,0	4.628	-1,2	324.081	65,7	10.741	86.011
Beste ostatuak	737	-0,1	1.592	0,7	97.189	35,4	18.137	21.490
Janari eta edarien zerbitzuak	12.037	-1,0	52.924	-2,5	2.754.052	30,9	210.585	206.217
Jatetxeak eta janari postuak	4.077	3,0	24.781	0,5	1.444.409	33,4	77.691	123.363
Beste jan-zerbitzuak	263	-4,0	9.222	-7,9	342.691	21,1	5.382	14.889
Edaritegiak	7.697	-2,8	18.921	-3,4	966.952	31,0	127.512	67.965

Data 2023ko Ekainaren 29a

Iturria: Eustat. Zerbitzuen inkesta

Adierazle ekonomikoek bilakaera positiboa izan dute hiru lurraldeetan, baina intentsitatea ez da bera izan

Lurraldeen arabera, hirurek izan dute bilakaera positiboa 2021 ekitaldiko zifra ekonomikoetan. 2020arekin alderatuta, Arabako ostalaritzako negozio-zifrak % 26,7 egin du gora, Bizkaikoak % 31 eta Gipuzkoak % 40,7. Balio erantsia neurtuz gero, emaitzak are kategorikoagoak dira: Araban hazkuntza % 37,6koa izan da, Bizkaian % 44koa eta Gipuzkoan % 58,5koa.

Ondorioz, 2021 ekitaldiko emaitza positiboa da, 27,5 milioikoa Araban, 103,2 milioikoa Bizkaian eta 108,7 milioikoa Gipuzkoan. 2020an hiru lurraldeek izan zituzten lehenengoz ekitaldiko emaitza defizitarioak; 2021an, berriz, ekitaldiko emaitzak ezagutzen den serie historikoko altuenak izan dira hirurentzat. Eta hori hala izan da, nahiz eta murrizketa nabarmenak izan diren enpleguan: % 2,1ekoa Bizkaian, % 2,6koa Araban eta % 2,4koa Gipuzkoan. Gainera, Araban establezimenduen % 1,6 gutxiago izan dira eta % 1,2 gutxiago Bizkaian; Gipuzkoan, bestalde, zifra ia ez da aldatu (% 0,1).

Euskal AEko ostalaritza-sektoreko aldagai nagusiak, lurralde historikoaren arabera . 2021

	Euskal AE	Urteko aldakuntza (%) 2021-2020	Araba/Álava	Urteko aldakuntza (%) 2021-2020	Bizkaia	Urteko aldakuntza (%) 2021-2020	Gipuzkoa	Urteko aldakuntza (%) 2021-2020
Establezimenduak NU	13.410	-0,8	1.930	-1,6	7.058	-1,2	4.422	0,1
Landunkopurua NU	59.144	-2,3	8.424	-2,6	29.580	-2,1	21.140	-2,4
Negozio-zifra (milaka euro)	3.175.322	33,9	428.854	26,7	1.531.030	31,0	1.215.438	40,7

Data 2023ko Ekainaren 29a

Iturria: Eustat. Zerbitzuen inkesta

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62